



2022 urte zaila izan da, Europaren bihotzean dagoen gatazka belikoak eragindako ondorioak direla eta. Gerra horrek krisi energetikoa, inflazio-nahiz elikagai-krisia ekarri ditu, eta horrek gure lurraldeko herritarrei ere eragin die.

Idiomas Vital Fundazioak egoera berrietara egokitzeko eta aldaketa sakonei ekiteko ahaleginak egin ditu, arabarrei kalitatezko hizkuntza-irakaskuntza eskuragarria eskaintzea helburu.

Egitura eta edukiak gure ikasleen eskaeretara erabat egokitzeko gure web-orria berritu ondoren, online modalitatean matrikulatzeko aukera eskaintzeaz gain, Cambridgeko Unibertsitateari

lotuak dauden First eta Avanced azterketa ofizialak prestatzeko ikastaro trinkoak ere eskaintzen hasi gara.

Era berean, aurrez aurreko eskolen osagarria den prestakuntza-eskaintza zabaltzen jarraitu dugu, Moodle plataformaren bitartez. Plataforma horretan, ikasleak ariketa praktikoetara eta dokumentazio osagarria sar daitezke beren gailuetatik.

2022-23 ikasturte barruan, etengabeko hobekuntzaren aldeko apustu argia den 2022ko lorpena azpimarratu behar da, hau da, Idiomas Vital Fundazioaren Audioko gune berria abian jartzea. Gune berria abiaraztean honako talde

hauek zituen: ingeles-talde bi, bata haurren lehenengo mailakoa eta bestea helduen lehenengo mailakoa; frantseseko lehenengo mailako taldea; eta alemaneko lehenengo mailakoa. Lehenengo urratsa, finkatzen joateko eta hurrengo ikasturteetan mailen eskaintza zabaltzeko eta beste esparru batzuetara iristeko, hala nola enpresara edo merkataritzara, eta gure sorrera-helburua betetzeko, hau da, Aiarako Harana osoan kalitatezko hizkuntza-prestakuntza eskaintzeko. Era berean, nabarmendu behar da lehen aldiz eskaini dela euskara ikasteko aukera, 2022-23 ikasturterako, haur zein helduentzat diseinatutako oinarritzko mailatik hasita.

Kuota ordaintzeko erraztasunen artean, Idiomas Vital Fundazioak % 15eko hobaria eskaini die hiru ikasle edo gehiago dituzten familia-unitateei, gure edozein ikastetxetan matrikulatzea erabaki badute.

Idiomas Vital Fundazioako lantaldea osatzen dugun guztion lan gogorra, Arabako gizarteari hizkuntzen irakaskuntza modernoa eta kalitate onekoa eskaintzen jarraitzeko.

Jon Urresti García
Vital Fundazioetako presidentea

Hizkuntzen irakaskuntza

Idiomas Vital Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, pribatua eta helburu sozialekoa, eta hizkuntzen irakaskuntza finantzatzea, sustatzea eta arlo horretako zerbitzuak ematea du helburu.

1967an sortua, Idiomas Vital Fundazioak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza bere jarduerak hizkuntzen kalitatezko irakaskuntzan ematen, ingelesa bereziki, eta 14 urtetik beherako gazteei gehienbat.

Gaur egun, hezkuntza-eskaintzak ingelesa ez ezik, Arabako gizarteak gero eta gehiago eskatzen dituen beste hizkuntza batzuen irakaskuntza ere hartzen

du barne, hala nola, frantsesa, alemana, txinera eta arabiera.

Ingeles klaseak dira oraindik ere ugariak, eta fundazioaren jardunaren ardatz nagusia dira. Hizkuntza horretako hezkuntza-eskaintzak maila guztiak hartzen ditu, eta helduei nahiz zazpi urtetik aurrerako ikasleei zuzenduta dago.



Alemana edo frantsesa ikasteko eta txineraren edo arabieraren hastapeneko klaseak hartzeko, ikasleek DBHko 1. mailako ikasleak edo hortik gorakoak izan behar dute edo hamabi urte beteta izan.



Idiomas Vital Fundazioaren irakaskuntza-lana bat dator Nazio Batuen 2030 Agendan zehaztutako Garapen Jasangarrirako Helburuetako (GJH) laugarrenarekin: **Kalitatezko Hezkuntza**. 8. GJH: **Lan duina eta hazkunde ekonomikoa** eta 17. GJH: **Helburuak lortzeko itunak** ere partekatzen ditu.

Idiomas Vital Fundazioak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza hizkuntzen kalitatezko irakaskuntzan, eta bere azpiegiturak berritzearen eta egokitzearen alde egin du, pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza bermatzeko.







Ikastaroak eta hizkuntzak

Ingelesa


Ingelesa da, maila guztietan, ikasleek gehien eskatzen duten hizkuntza. Horregatik, eskolen eskaintza gainerako hizkuntzetan baino askoz zabalagoa da. Lehen hezkuntzako 2. maila ikasten ari diren ikasleekin egiten da hizkuntza horretarako lehen hurbilketak. Zuzenean sartzen dira Kinder izeneko ikastarora. Hurrengo ikastaroa Hastapena da, eta 3 maila ditu. Ikasturte honetan ikastaro hauek eman dira:



Ingeles Berezia

Ingeles ikastaroen eskaintzak ikasleen adinari eta ikasturteari lotuta jarraitzen du. Horregatik, Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrak zuzenean sartu dira 1. berezia izeneko ingeles ikastarora. Gainerako adin guztietan, mailakatze-proba bat egin da izena aurretiaz emateko unean, ikasle bakoitzak zer ikastarotara sartzen den erabaki ahal izateko. 1. mailako lau talde; 2. mailako sei talde; 3. mailako bost talde, 4. mailako lau talde eta 5. mailako lau talde aritu dira astean 3 eskola-ordutan.

Helduentzako ingeles-ikastaroetako ikasleak




Helduentzako ingelesa

Helduentzako ingeleseko eskolei dagokienez, 21-22 ikasturtean zehar astean 3 orduko bost maila eskaini dira. 1. mailan lau talde osatu dira, 2. mailan bi talde. 3. mailan ikasle eskaera handiagoa izan dute eta bost taldetara iritsi dira; 4. mailan lau talde eta helduentzako ingeleseko 5. eta azken mailan bi gehiago.

Ingeles komertziala (Vital Fundazioa bekak)

Aipamen berezia merezi du ingeles komertzialak edo Business English delakoak. Unibertsitate-tituludunentzako eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludunentzako ingeles teknikoak eta komertzialak hobetzeko Vital Fundazioak urtero egiten duen bekaren deialdiari erantzuten dio Idiomas Vital Fundazioak. Hala, 21-22 ekitaldian 100 orduko ikastaroa eman zaie bekadun izan diren hamar ikasleei. Beka bakoitzak 650 euro ditu, eta bekan sartzeko gutxieneko sarrera-maila B1 frogagarria da. Eskolak ordu eta erdikoak izan dira astean bi egunetan (guztira 3 ordu astean).







Ikastaroak eta hizkuntzak

Ingelesa


Ingelesa da, maila guztietan, ikasleek gehien eskatzen duten hizkuntza. Horregatik, eskolen eskaintza gainerako hizkuntzetan baino askoz zabalagoa da. Lehen hezkuntzako 2. maila ikasten ari diren ikasleekin egiten da hizkuntza horretarako lehen hurbi-lketa. Zuzenean sartzen dira Kinder izeneko ikastarora. Hurrengo ikastaroa Hastapena da, eta 3 maila ditu. Ikasturte honetan ikastaro hauek eman dira:



Ingeles Berezia

Ingeles ikastaroen eskaintzak ikasleen adinari eta ikasturteari lotuta jarraitzen du. Horregatik, Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrak zuzenean sartu dira 1. berezia izeneko ingeles ikastarora. Gainerako adin guztietan, mailakatze-proba bat egin da izena aurretiaz emateko unean, ikasle bakoitza zer ikastarotara sartzen den erabaki ahal izateko. 1. mailako lau talde; 2. mailako sei talde; 3. mailako bost talde, 4. mailako lau talde eta 5. mailako lau talde aritu dira astean 3 eskola-ordutan.

Helduentzako ingeles-ikastaroetako ikasleak



Helduentzako ingelesa

Helduentzako ingeleseko eskolei dagokienez, 21-22 ikasturtean zehar astean 3 orduko bost maila eskaini dira. 1. mailan lau talde osatu dira, 2. mailan bi talde. 3. mailan ikasle eskaera handiagoa izan dute eta bost taldetara iritsi dira; 4. mailan lau talde eta helduentzako ingeleseko 5. eta azken mailan bi gehiago.

Ingeles komertziala (Vital Fundazioa bekak)

Aipamen berezia merezi du ingeles komertzialak edo Business English delakoak. Unibertsitate-tituludunentzako eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludunentzako ingeles tekniko eta komertziala hobetzeko Vital Fundazioak urtero egiten duen beken deialdiari erantzuten dio Idiomas Vital Fundazioak. Hala, 21-22 ekitaldian 100 orduko ikastaroa eman zaie bekadun izan diren hamar ikasleei. Beka bakoitzak 650 euro ditu, eta bekan sartzeko gutxieneko sarrera-maila B1 frogagarria da. Eskolak ordu eta erdikoak izan dira astean bi egunetan (guztira 3 ordu astean).



Sancho el Sabio Vital Fundazioko langileentzako ingeles ikastaroak

Idiomas Vital Fundazioak egiten dituen lankidetzen artean, nabarmentzekoa da Sancho el Sabio Vital Fundazioko langileen ingeles-ezagutzak hobetzeko egiten dena. 21-22 ikasturtean zehar ingelesaren hastapeneko eskolak lau lagunek jaso dituzte, eta beste hiruk, berriz, ingeles aurreratukoak. Eskolak astean 3 ordukoak izan dira.


Beste hizkuntza batzuk

Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza komunitario batzuetako ikastaroak ere eskaintzen ditu, hala nola alemana eta frantsesa. Ikastaro horiek, ikasturtea bezala, irailtik ekainera bitartean ematen dira, hamabi urtetik aurrerako ikasleentzat. Ikastaroak astean hiru ordukoak dira. 21-22 ikasturtean aleman maila bi eta frantses maila bi egon dira.

Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza batzuk irakasteko eskaerari ere erantzun dio, haien irakaskuntza ez baita ohikoa izan gure lurraldean. Irakasle batek arabierako maila biko eskolak ematen dizkie hamabi urtetik aurrerako ikasleei. 21-22 ikasturtean hizkuntza hori 16 ikasle aukeratu dute eta astean hiru eskola ordu jaso dituzte.

Era berean, txinera klaseak ere eman zaizkie 5 ikasleri, hasiera mailan, astean hiru orduko maiztasunaz.

Ikasleak beste hizkuntza batzuetako ikastaroetan




+55 urtetik gorakoentzako ikastaroak

Vital Fundazioak hizkuntzak ikasteko programa bat du, 55 urtetik gorakoei eskaintzen dena, eta ikasturtea bezala, irailtik hurrengo urteko ekainera bitartean egiten da. Idiomas Vital Fundazioan egiten dira ikastaroak eta astean 3 ordukoak dira, eta ingelesa, frantsesa eta euskara eskaini dira 21-22 ikasturtean. 55 urtetik gorako 50 ikasle, sei taldetan banatuta, ingeles hizkuntza-ren ezagutza hobetu dute, eta 11 ikasle, berriz, talde batean, frantsesa aukeratu dute, eta, azkenik, 6 ikasle euskara talde batean aritu dira.

Beste erakunde batzuetarako ikastaroak

Aurreko ikasturtean bezala, 2021-2022 ikasturte honetan ingeles ikastaro bi eskaini dizkiegu merkataritzarako eta ostalaritzarako langileei, AENKOMER-Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen bidez, bata maiatzean eta bestea urrian. Ikastaroak ordu biko 9 saiotan egin da, eta 14:15etik 16:15era bitarteko ordu-tegian, 'pilula' gisako prestakuntza jaso dute, beren jarduera-ordutegitik eratorritako premietara egokituta.

Halaber, prestakuntza bat eskaini zaie Egibideko Lanbide Heziketako ikasleei, ingelesa hobetzeko. A2 eta B1.2 mailetako bi talde izan ditugu, astearte eta ostegunetan lehena eta astelehen eta asteazkenetan bigarrena, 2021eko azarotik 2022ko martxora. Guztira bi orduko 30 saio izan dira, 16:00etatik 18:00etara



Beste jarduera batzuk

Speaking Café

2021-2022 ikasturte honetan, bilerek ahalbidetzen ez zituzten pandemiaren murrizketen ondorioz martxan jarri zen ‘Speaking Café’ jardueraren eskaintza berri du. Talde-topaketa bat modu birtualean birsortzeko aukera eskaintzen da, ingelesa praktikatzeko eta modu informalean hitz egiteko partaideak kafetegi batean egongo balira bezala, eta hortik datorkio izena jarduerari.

Saio bakoitzean irakasle bat izan da moderatzaile, eta solasaldia hasteko gai bat proposatu du: gaurkotasuna, albisteak eta abar.

Jarduera online garatu da Skype aplikazioaren bidez eta parte hartzeko ingeleseko oinarri jakin bat behar izan da; horrenbestez, maila bi ezarri dira: ertaina (B1era arte) eta aurreratua (B2 edo hortik gora).

Ordubeteko solasaldiak izan dira, astean bi edo hiru saio, astelehen, asteazken eta ostiralean.



Beste hezkuntza-jarduera batzuk

Idiomas Vital Fundazioak ikasgelak, multimedia-gela, hizkuntza-laborategi digitala, liburuak mailegatzeko zerbitzua duen liburutegia eta ikasketa-gela ditu bere instalazioetan. Ohiko eskola gehienak 18:00etatik 21:00etara ematen dira, astelehenetik ostiralera, eta 17:30etik 20:30era izaten da laborategiko ordutegia.

Idiomas Vital Fundazioak, eskolak emateaz gain, hezkuntza-jarduera ugari egiten ditu. Horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

Ikasleei aholkuak ematea ikastaroei, azterketei, atzerriko egonaldiei, trukeei eta lanei buruz, eta laguntza ematen zaie curriculumak eta aurkezpen-gutunak egiteko nahiz lan-elkarrikeretarako prestatzeko.



Idiomas Vital Fundazioak Laudioko ibilbideari ekin dio

Ikasturte berria 2022ko irailean hastearekin batera, Idiomas Vital Fundazioaren egoitza berria jarri da abian Laudion. Ingeleseko talde bi daude, bata hurren lehen mailakoa eta bestea helduen lehen mailakoa, frantseseko lehen mailako talde bat eta alemaneko lehen mailako beste talde bat. Asmoa da finkatzen joatea eta hurrengo ikasturteetan mailen eskaintza zabaltzea eta beste esparru batzuetara iristea, hala nola enpresara edo merkataritzara, eta gure sorrerako helburua betetzea, hau da, Aiarako bailara osoari hizkuntzetan kalitatezko prestakuntza eskaintzea.



Webgunea egokitzea eta berritzea

Webgunearen berritzea burutu denez, 2021-22 ikasturteko online matrikulazioa eskaini ahal izan zaie ikasle ohiei nahiz berriei, eta erraztasunak eman dira ikastaroko kuotei aurre egiteko; izan ere, bi epetan ordaindu ahal izan da (irailean eta urrian). Ikasturte honetan ere hobariak egin zaizkie ikastetxeko egungo ikasleek ‘gonbidatuta’ iritsi diren ikasleei (% 15 ikasle berriei eta zaharrei, biak matrikulatzen badira), eta % 10etik % 15era igo dira familia ugarietako kideentzako hobariak. 2020-2021 ikasturtean izoztuta egondako kuoten zenbatekoa 370 €-koa eta 555 €-koa izatera igaro da 2021-2022 ikasturterako 2 eta 3 orduko ikastaroetarako, hurrenez hurren.

Ikasle berrien kasuan, nahitaez aurrez aurrekoa izan behar izan duen maila-probak aurretiko hitzordua behar izan du.

Webgunea berritzeari esker, prestakuntza eta eduki berriak eskaini ahal izan dira prestakuntza-moodle baten bidez. Moodle horren bidez, hainbat tresna elektronikori esker komunikatzen dira irakasleak eta ikasleak. Plataforma horrek prestakuntza-dokumentazio osagarria eskuratzea ahalbidetzen du, baita ikaskuntza hobetzeko ariketa praktiko ugari ere. Ariketak mota guztietakoak dira: testak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, etab.

